



« AXULAR-en HIZTEGIA »

Hau da ene bigarren lezioaren gaia. Haritschelhar jaunak bazekien, nunbait, lan hau egiten nebilela — Axular-en hiztegia liburu berezi batean ematen, alegia —, eta horregatik jarri didate gai hau.

Bai. « Jakin » argitaldaria aurki argitaratu behar du Hiztegi hori. Neurekin neuzkan karpeta guztiak Aita In-txaustik eraman dizkit, inprentako lanetarako behar zituela eta. Gabe gelditu naiz, bada. Memento honetan dokumentazio guztia inprentan dago. Ezingo dut, beraz, neure lezio hau etsenpluz eta abar hornitu, nahi eta behar litzatekeen bezala.

Zer egin orduan ? Lan horren berri zerbait eman. Zergatik egin dudan. Zertarako balio lezakeen honelako lan batek. Lana bera egitekoan nola edo zer moduz jokatu naitzen, eta abar.

*

Eta hasteko, lot gakizkion pixka bat urrunetik geure suietari. Ura iturritik hartuz. Errora joanez.

Hemen gabilta zenbait idealista, ameslari edo ez dakit nik zer esan. Euskararen salbamendua amets dugu. Mendez-mende, geure aitzinekoetarik heldu zaigun ondasun hau salbatu nahi dugu.

Hortarakotz, gaur-eguneko soziedade modernuan bizi-rik irauteko, egungo premiak eta behar-izanak ager arazteko, mintzabide egoki bihurtu beharra dauka euskarak. Tresna zalua, ongi trenpatua eta trebatua bilkatu beharra

dauka. Eskoletan taxuz irakatsia izateko modukoa bihurtu beharra. Idatzizko zereginetan erabilia izateko gai egin beharra, ta abar, ta abar.

Bai. Gauza askoren beharrean dugu geure euskara gaitxo hau. Eta gehienak egiteko dira oraindik. Atzerapen handi batekin harrapatu gaitu aro berriak. Mende berriaren uholdeak ez ote digu geure herriaren euskaltasuna jango? Beldur izatekoa da. Serioski lanari lotzen ez baldin bagara, bai, behintzat. Eta gure artean langile zintzo guti da.

Hainbeste gauza, zein baino zein premiatsuagoak, beharrezkoagoak. Nondik hasi? Zeri heldu? Bada zer pentsa. Buru ernea, begi argia eta esku trebeak behar, txegintza honetan behar bezala jokatzeko.

Euskarak, gaur den egoitzan, gaitz asko ditu. Hizkuntza bezala badu ahulezia handi bat. Laborari-arrantzale bazuen mintzaira da; beste gizarte-maila eta estamentuetan kasik ez da erabilia. Maila orotan komunidadere baten mintzabide izan dadin, urrats handiak egin beharko ditu.

Hizkuntzak hitz egiteko eginak dira. Ezpainetan erabiliak izateko. Hori gabe ez dira deus. Euskara bizia indartu behar dugu, beraz Gure eguneroko bizitza arruntean eta har-eman guztietan euskarari zor zaion tokia emateko, lan egin.

Euskara mintzaturia indartzea, hori da lehen. Hori da, hobeki esateko, lehena, erdia eta azkena, hori da dena. Severo Altube euskaltzaina, Pabe-ko desterruan anitz urte bota zuena, beti ari zen hauxe errepikatzen: hizkuntza mintzatuaren lehentasuna, alegia, eta hau galdua balitz, dena galdua legokeela. Bego hau garbi.

Baina beste hau ere gaineratu beharra dago, ene ustez.

Gaurko terminologia batez baliatuz, nik esago nuke hizkuntza biziak, gaurko zibilizazioan bizi ahal izateko, azpi egitura edo **infra estruktura** baten premia edo babes behar dutela. Bizitzar maizenik gauzak elkarturik egon ohi dira, bata besteekin loturik. Hizkuntzaren bizia da lehen, haina bizi hori seguratzeak berak beste baliamentuak baliatzea ere geldetzen du.

Nik esan nahi dudana infra estruktura hori, badakizute zein den: idatzizko zereginetan eta irakaskintzan erabilia izateko hizkera batu-orokor eta berdina edukitzea. Tresna

hori eginik ez dugun bitartean, euskara ez da izango gai, ez eskolarako, ez idazlanetarako, eta euskaldun guztien artean lokarri izateko ere ez.

Hizkera idatziaren batasuna eginik edukitzea, hori da, besteak beste, hizkuntza biziak behar den azpi egitura edo infra estruktura.

Batasun-lanetan gabiltzanoi maiz jaurtitzen digute zirto hau : Ba. Zuek, euskara, hizkuntza hila balitz bezala jotzen duzue, hizkuntza hilak tratatzen diren bezala tratatzen duzue.

Ene ihardespena objezio horri hauxe da : Munduan diren hizkera batu guztiak, literario hizkerak, bere izatez eta egitez, hizkuntza hilak dira, gogortuak, aldakaitz bihurtuak, ormatuak, nahì baduzue. Eta halakoxeak behar dute izan, gainera, beren egitekoa egingo baldin badute. Orduan, eta orduan bakarrik, dira gai eskola bidez irakatsiak eta zabalduak izateko, idatzizko zereginetan erabiliak izateko, ta abar. Eta hizkera batu hori, ormatu, hil eta gogortu hori, etsai ez, baina lagun eta adiskide izan ohi da hizkuntza biziarekin. Biak, hizkuntza mintzatua eta idatzia, anaitasun ederrean bizi ohi dira bata bestearen ondoan, elkar lagunduz, batek bestea aberastuz.

Testamentu Berrian esaten zaigu Legeak ez dakarrela bizia. Bizia, fedetik eta graziatik heldu dela. Alabaina, legearentzat ere bada toki bat kristau bizian. Nik ez dakit euskarak duen bizi-ahulezia eta makaltsuna sendatzeko, hizkera batuaren tresna gerturik edukitzea, bera bakarrik, aski erremedio izango ote den. Beharbada ez. Baina beste erremedioekin batean, honek ere mesede ederra egin liezaiokeela, hori bai, sinesten dut.

*

Euskara orokor literario hori nola muntatu, ordea ?

Erresuma batzuek hiriburuko hizkera edo eskualde jakin batekoa hartu izan dute oinarritzat, bai idazteko eta bai mintzatzeko ere, hura erabiliz.

Gure kasuan horrelako hiribururik ez dugu. Bere hizkera besteren gain jar dezakeen eskualderik ere ez. Gainera, horrelako inperialismorik nekez onartuko lukete beste euskaldunek.

Bereizkuntza ere egin beharra dago hizkera batuer.

artean : badira, alegia, bi motatako hizkera batuak : batzuk idatzi eta hitz egiteko erabiltzen dira (hala nola frantsesa eta espainola), beste batzuk idazteko soilki (hala nola italiarra, alemana t.a).

Guk nahi dugun euskara batua, berez, bigarren klase honetakoa izango litzateke. Euskalki mintzatuen etsai ez den hizkera batua.

Beste oharkizun bat ere egin beharra dago : horrelako literario hizkerak badituela lehendik ere euskarak. Eta ez bat bakarrik. Lau gutienez : lapurdiera, zuberokoa, gipuzkoarra, bizkaitarra.

Hala da. Eta gertaera hau kontuan eduki behar da. Hizkera batu hauen nortasuna aitortu behar da. Lau gehiegitxo izan, ordea, eta bakoitzak eremu estu-meharrean du bere aginpidea. Hoiak bat ere arbuia edo gaitzetsi gabe, hoiak gainetik edo hoiak aldamenean, euskara batua, guztiona, behar eta nahi dugu. Euskal Herri guztia batasun bat bezala hartuz, denean hizkera idatzi arrunt eta orokor bezala aginpidea izan lezakeena.

Baina lehengo galdera berriz ere : Euskara orokor hori nola eratu ? Arantzazuko Batzarrean aurkeztu zen Aitzin-Asmoak honako bide hau erakutsi du : euskara bere osotasunean hartuz, guztiona dena edo jatorriz guztiona zena (oraindik bizirik baldin badago behintzat), hori har dadila euskara batuaren oinarritzat. Beraz, euskara batu hori euskalki berezi batean ez, baina guztion muin horretan egongo litzateke finkatua.

Hizkera hau idatzizko zereginetarako izango litzateke, berez eta zuzenean behintzat. Eta eskola bidez ikastekoa. Zehazki mintzatzeko, beste muga hau ere ipini behar da : idatzizko zereginetan eta eskolan toki bat ezango litzateke oraindik lehen aipaturiko euskalki batu edo literario haien-tzat.

Euskara orokor batu hori estrukturatzea, ez da berehalakoan eta gaingiroki egin daitekeen lana. Sail edo barruti asko ditu : Ortografia, Hiztegia, Deklinazioa, Aditza, Morfologia, Joskera edo Sintaxia. Eremu bakoitzak baditu bere problematika eta hauzi bereziak, eta hemen ezin sar gaitzeko sail bakoitzeko hauzi hoiak iharrostera.

Baina euskara batu orokor horren estruktura guztia eginik balego ere, hori hezurra, gainaldea baizik ez dugu. Eta hezur horren barneko muin edo gunaren beharrean gaude oraindik.

Izan ere, hizkuntza baten arima, jainua edo jitea, non da ? Nik esango nuke kanpoaldeko estruktura horretan baino areago dela arima hori itzuliketari, idiotismoetan, esaldiak muntatzeko tankera jator-berezian, eta abar. Eta hori denori, non ikas ? Hitzun onen ahotik ere bai, segurki ;baina guztiz ere (idazteko premietaz ari garenez gero), idazle jator-handien obretarik.

Literatura guztietan badira maisu - lanak, **chef-d'œuvres**, gailurra jo dutenak, estimaziorik gorena erdietsi dutenak, mamiz eta azalez bikainak, hizkuntza hark eman dituen fruiturik umoenak bezala joak eta seinalatuak gelditu direnak. Hizkuntza haren barnean eredu eta ispilu bezala hartu ohi diren obrak, alegia.

Hoiek zurrupatzetik, hoiek hurbildik ezagutzetik eta hoiekin tratatu izatetik, berebiziko laguntasuna atera ohi da hizkuntza hura bera sustraitik ikasteko.

Euskaldunon euskaltasuna zergatik izan ohi da gehienetan hain mehea, axalekoa, erorkorra, eta galtzen erraza ? Hizkuntza horretan eskola sakon-iraunkorrik egin ez dugulako, geure hizkuntzako maisu-lanik pixka bat sakonki ikasi ez dugulako.

Gure literaturak, bere tipian, izan du, bai, horrelako maisu-lanik. Zoritxarrez, ez ditugu ezagutzen. Eta orduan ez balira bezala dira.

Euskaltasunak gudan erro sakonak egin ditzan, mardul bizi dadin, horrelako liburuen adiskide mami izatea bezalakorik ez dago. Erresuma denetan dakite hori. Eta hizkuntzaren klasikoetan eskolatzen dituzte beren ume eta ikasleak.

Euskararen guna edoski eta geureganatzeko, horrelako liburuen beharra dadukagu.

Baina klasiko hoiek ezagutzeko ere bideak erraztu beharra dago, laguntzak eskaini behar dira. Hizkuntza guztietan egoten dira horrelako tresna edo lagungarriak. Gaztelaniarako Covarrubias-ek XVII. mendean « Tesoro de la lengua castellana » atera zuen, hots, gaztelerazko klasi-

koen ondasuntetia. Eta hebreoa berpiztu zuen Ben Yehuda jauna antzera jokatu zen. Latinez du titulua honen obra handiak : « Thesaurus totius hebraicitatis, tam veteris quam recentioris, auctore Eliezer Ben Yehuda, Hierosolymitano ».

Euskaraz ez dugu oraino horrelako gordairurik, ondasuntetirik. Tokitan gaude ! Hala ere, horrelako zerbait egin nahi izan digute geure hiztegitik, Silvain Pouvreaugandik hasita.

Nik, behar eta falta dugun gordairu hori egiteko, harritu bat eskaini nahi izan dut, bada. Gure klasiko baten, handienaren Hiztegia. Zergatik hautatu dudan Axular eta ez beste bat ? Euskaraz egundaino egin den libururik famatuaren egile bera delako. Klasiko izena eta maisulan maila inori zor baldin bazaio, berari zor zaiolako. Mugaz hango eta hemengo izanik, bi Euskal Herrien artean zubi eta lokarri izateko guztiz aukerakoa dugulako. Prosa aberats-jori eta ongi trenpatua egiten aparteko maisua delako. Azal eta mamiz bikain-bikaina eta trinkoa den obra baten egile delako. Obra hau, beste aldetik, neurri batean orijinala ere bada, gure lurraren fruitu jatorra, nahiz eta bestetatik karriatutako gaiak ere izan. Ezin agortuzko iturri eta harrobia dugun liburu hau. Ongi eman du guzti hori aditzera Oxobi-k, Axular-i eskaini dion bertso hartan :

« Eskerrak, Axular !
Bihi, bazka, indar
egun eta bihar
badakjigu nun har :
zu baitan ! »

*

Axular-en Hiztegi hori prestatzeko nola moldatu naizen ?

Lehenbiziko lana : hitzak fitxatan biltzea Nerau bakarrik hasi nintzen. Baina bakarrik egitez gerotan sekula bukatuko ez nuela eta, besteren laguntza-eske joan nintzen : Arantzazuko teologo ikasleengana, alegia. Fitxaje lana askoren artean egin zen, bada. Hamarren bat lagunek lagundu zidaten materiala biltzen.

Gero fitxa hoiek bana-banaka aztertu, aipamen guz-

tiak egiztatu, etsenpluak hautatu, dena behar den ordenan eman, garbitan pasa eta abar, hori neronek bakarrik egin dut.

Beraz, hiztegi gisa dago dena emanik. Axular-baitan ageri diren hitz guztiak bana-banaka daude erreskadatuak. Hitz hori zein tokitan ageri den esaten zaizu. Toki batean baino gehiagotan ageri denean, beste toki hoiek ere jartzen dira. Horrek asko balio du hitzaren maiztasuna neurtzeko. Gauza jakina da hizkuntza batean ez dutela berdin balio behin edo bakanka esaten diren hitzak eta maiztasun handiko direnak. Hitz bakoitzari buruz etsenpluak jartzen dira, Gero-tik hartuak beti. Esaldi osoak gehienetan, hitz hura esaldiaren barne delarik.

Izan ere, hitza bere gorrian, hitz soila eta biluzia, gauza guti da. Nola erabili ohi den jakiteko, matiza (nuantza) atxemaiteko, errejimena ikasteko, enplegu jatorrari ohartzeko, inguruari lotua behar da ikusi. Arraina uretan denean da arrain, hitza ere, esaldi barruan atxemaiten duzunean, orduan eta orduan bakarrik dakizu zuzen eta zihur zer den. Ene hiztegi horretan horrela ematen dira hitzak : esaldiaren barnean murgilduak, pulunpatuak.

Baina hitz batetik itzulika edo esanmolde bereziak sortzen direnean, hoiek ere jartzen dira. Gorago esan dugun bezala, modismo edo itzulika hoietan da, neurri handi batean behintzat, hizkuntzaren arima. Itzulika edo modismo hoiek jasotzen kontu handia ipini dugu. Esate baterako, **Gogoeta** hitzaren ondoren, « gogoeta egin » ageri da bere esanahi bereziaz eta etsenpluez. Eta horrelatsu « begia eduki », « begi eman », « laster egin », « zer egin gogo duzu ? », « kontu guti egin » eta hainbeste eta hainbeste esanmolde jator, beren esanahi bereziaz eta etsenpluez seinaturik datoz.

Era honetara, Hiztegi honek Axular-en liburua estudiantzeko eta bai euskara bera gure idazlerik handienaren bitartez ikasteko ere, tresna lagungarri bat izan nahi du.

Askotan esan izan da obra bat ongi egina denean, eta batez ere, Axular-ena den bezala, maisu-lana denean, hola-koetan, obra hartarik egileak berak uste eta eman gogo zuen baino ere askoz gehiago atera ohi dela, eta halaxen da egia.

Nik ez ditut zehazki kontatu Hiztegi honetan ageri diren hitz, artikululu edo epigrafe guztiak, baina bost milatitik gora badirela uste dut.

Gero-n agertzen diren izen propioak ere (toki eta pertsona izen propioak) jaso dira.

Bi hizkuntza landuz inguraturik bizi gara euskaldunak. Geure ikasketak hizkuntza hoietan eginik gaude. Ez da, bada, milagro askotan erdal hitza burura badatorkigu. Erdal hitz hau euskaraz nola esan ? : hori izaten da galdea. Hau kontutan edukiz, Hiztegi honetan euskal hitzaren esanahia gaztelaniaz eta frantsesez ematen da. Eta liburua-ren atzekaldean, hiztegian ageri diren hitz guztiak datoz, bai gaztelaniazko eta bai frantseseko ordainen araura ordenatuak. Era hortara Hiztegiaren baliostasun praktikoa asko gehitzen dela uste dugu.

Esan dezagun, azkenik, « Jakin » argitaldariari eskerrak agertzen dela liburua.

*

Euskal heziketan Axular-en Gero-ri zor zaion tokia eman dakion, hiru liburu egin ditut. 1964ean Barcelona-n, Juan Flors-en etxean, Gero-ren edizio berria eman nuen, erdal itzulpen ta guzti. 1972an, « Jakin » liburutegian, « Axular : Mendea, Gizona, Liburua », Axular-i eta Axular-en liburuari buruz dakizkigun argitasunak bildurik emanez. Baditu, gainera, atzekaldean Gero-tik hartutako puska hautatuak eta hiztegin bat. Hirugarrena, azkenik, Hiztegi hau, Axular-en hizkuntzaz jabetzeko tresna edo lanabesa izan nahi lukeena.

Horrezaz gainera, Eleizalde Sorta-ko liburuxketan, euskal morfologia azaltzearekin batean, gaiak dakarren bezala, etsenpluak eta argitasunak Axular-gandik hartzen ditut baitipat. Deklinazioaren liburuxka atera zen, eta hitz konposatu eta deribatuena aurki agertzekoa da.

Izango ahal du noizbait Urdazubiko semeak euskaldunon artean justiziaz zor zaion ohorea ! Egia esan, haren ohoreak baino gehiago bultzatu nau lan hauetara gure behar gorrien erremediatzeko gogoak.

Luis VILLASANTE.